

## JAUNAREN IGOKUNDEA (C)

### Otoitza

Jainko ahalguztiduna,  
zure Seme Jesu Kristoren zerura igotzea  
garaipen gertatu da guretzat,  
eta Haren gorputzeko garenok badugu itxaropen,  
gure buru denak iritsi duen bizia iritsiko dugula geuk ere; iguzu, misterio honek pozez eta esker  
onez bete gaitzala.  
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Ap Eg 1, 1-11

*Igo egin zen, haiek begira zeudela.*

Apostoluen Eginetatik

Teofilo maite: Nire lehenengo liburuan idatzi nuen, Jesusek hasieratik egin eta erakutsi zuen guztia, Espiritu Santuakeraginda aukeratutako apostoluei aginduak eman ondoren, zeruetara igo zen arte. Jesus, bere nekaldiaren ondoren, agertu zitzairen bere apostoluei, bizirik zegoela argi erakutsiz; eta, berrogei egunez azaltzen zitzaizela, Jaungoikoaren erreinuaz hitzegin zien.

Berarekin jaten ari ziren batean, esan zien: «Ez zaitez tela atera Jerusalendik. Zaudete han, Aitak hitzeman eta zuek Niri entzundako agintzariaren zain. Joanek urez bataiatu zuen; zuek, ordea, Espiritu Santuaz izango zarete bataiatuak, hemendik egun gutxi barru».

Bildurik zeudenek galdegin zioten: «Jauna, orain eraikiko al duzu berritik Israelgo erreinua?» Eta Jesusek: «Ez dagokizue zuei, Aitak bere esku dauzkan uneak eta garaiak jakitea. Espiritu Santua etorriko zaizuenean, hartuko duzue indar nire aitorle izateko, Jerusalemenean, Judea guztian, Samarian eta lurraren azken mugaraino».

Hori esanik, igo egin zen, haiek begira zeudela; eta hodei batek gorde zuen begien aurretik. Zerura nola zihoan begira-begira zeudela, zuriz jantzitako bi gizon aurkeztu zitzaizkien, eta esan zieten: «Galilearrok, zertan zaudete hor, zerura begira? Zuek utzi eta zerura igo den Jesus hori berriz etorriko da, joaten ikusi duzuen bezala».

ERANTZUN SALMOA: Sa1 46, 2-3. 6-7. 8-9

**R/. Oihu alaien artean igo da Jainkoa,  
turuta-soinuz, Jauna.**

Edota: **Aleluia.**

Herri guztiok, txalo jo ezazue,  
Jainkoari irrintzi egiozue.  
Goi-goiko Jauna, izan ere, izugarri,  
lurbira osoan errege haundi. R/.

Oihu alaien artean igo da Jainkoa,  
turuta-soinuz, Jauna.  
Eresi Jainkoari, eresi,  
eresi gure erregeri, eresi. R/.

Jainkoa baita lurbira osoan errege,  
egiozue jator goratzarre.  
Jainkoa errege da atzerrietan,  
eseria dago Jainkoa bere aulki santuan. R/.

## II. IRAKURGAIA: Ef 1, 17-23

*Zeruan bere eskuin aldean eser erazi zuen.*

San Paulo Apostoluak Efesotarrei

Senideok: Jesu Kristo gure Jaunaren Jaungoikoak, aintzaren Aitak, eman diezazuela jakinduriatzeko eta goi argizko espiritua, Bera ezagutzeko. Argi bitza zuen bihotzeko begiak, horrela jakin dezazuen, nolakoa den Haren deiaren itzaropena, nolakoak Haren aintzaren aberastasunak, Berak santuei oinordekotzan emanak; nolakoa Haren ahalmenaren haundia, sinesten dugunontzat. Ahalmen eta indar guzti hori Kristorengan agertu du, Berau hilen artetik piztu eraztean eta zeruan bere eskuin aldean eser eraztean: agintaritza, nagusitza, ahalmen eta jauntasun guztien gaintetik, eta nahiz oraingo gizaldian, nahiz gerokoan, aipa daitezkeen izen guztien gaintetik eser eraztean.

«Gauza guztiak oinpean jarri zizkion», eta Bera, guztien gaintetik, buru ezarri dio Elizari. Eliza, berriz, Haren gorputza da, guztietan guztia betetzen duenaren betea.

EBANJELIOA: Lk 24, 46-53

**Aleluia:** Mt 28, 19a. 20b

R/. Aleluia.

V/. Zoazte eta egin ikasleak herrialde guztietatik  
—dio Jaunak—:  
Ni zuekin nauzue egunero,  
munduaren azken egunera arte. R/.

*Bedeinkatzen zituen bitartean,  
zeruetara eraman zuten.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, Jesusek esan zien bere ikasleei: «Honela zegoen idatzirik: Mesiasak nekaldia jasan behar du, eta hirugarren egunean piztu egingo da hilen artetik; Beraren izenean hotsegingo zaie bihotz-berritzea eta bekatuen barkamena jende guztiei, Jerusalemik hasita. Zuek zarete gauza hauen testigu.

Nik neure Aitaren agintzaria bidaliko dizuet. Zuek, zaudete hirian, goitik indarrez jantziko zaituzten arte».

Gero Betania aldera atera zituen; eta eskuak jasorik, bedeinkatu egin zituen. Eta bedeinkatzen zituen bitartean, bereizi egin zen haiengandik, eta zeruetara eraman zuten. Haiiek, Hura ahuspez

gurtu ondoren, pozez beterik Jerusalem itzuli ziren, eta beti jauretxean zeuden Jaungoikoa goresten.

### **Oparigaien gainekoa**

Opari au, Jauna, apalik eskaintzen dizugu,  
Zure Semearen zerura igotzea ospatzen dugun egun honetan; misteriozko harreman honen bidez,  
egizu,  
Berarekin batean zerurako piztu gaitzela.  
Errege bizi baita.

Prefazioa: Pazkoaldikoa.

### **Jaunartze ondorengoa**

Jainko ahalguztidun betierekoa,  
lur honetan bertan ematen dizkiguzu zeruko ondasunak;  
egizu, geure indar guztiz ahalegin gaitzela  
Kristorekin bizi izaten,  
Berarengan eman diguzunez gero  
jainkotasunean Zeurekin bat egitea.  
Jesu Kristo.